

# Hizkuntzaren biziberritzerako politika eraginkorra: nolakoa izan liteke?

**Julia Sallabank**

*Hizkuntzenganako Babesa eta Biziberritze ataleko irakaslea. Ekialdeko eta Afrikako Ikasketa Eskola. London Unibertsitatea*

**Itzulpena: Nerea Díaz Alkorta**

**Laburpena.** Lan honek galzorian dauden hizkuntzen politika eraginkorrak nolakoak izan litezkeenaren inguruan hausnartzen du. Horrez gain, hizkuntzaren biziberritze-gaiak lantzen ditu, besteak beste, definizioak, helburuak, metodoak eta erronkak, eta emaitzak ebaluatzeko irizpide posibleak planteatzen. Lanak duen helburua “hizkuntza bat salbatzeak” eta hizkuntza biziberritzearen eraginkortasunak zer esan nahi duen ulertzen laguntzea da. Lanak hizkuntzarekin lotura duten jarduerak aztertzen ditu eta beren funtsezko arrazoiak eta ondorioak azaltzen, bi ikerketa-kasuetan oinarrituz: Kanaletako uharteak eta Man uhartea (Britainiar uharteen mende dauden gobernu sistema txikiak). Uharte horietan guztietan, bertako hizkuntzen erabilerak behera egin zuen XX. mendean, baina azken 30 urteotan hizkuntza bereizgarritasun-marka baliotsu gisa ikusten da. Eta horrek laguntza publiko eta ikusgarritasun handiagora eramanez hizkuntzak. Hala ere, balio-handitze horrek ez du ekarri, halaber, erabilera areagotzea edo hizkuntzak menderatzea. Kanaletako uharteetan, bertako hizkuntzak ez daude ikasketa-planetan, eta biziberritze-ahaleginak ere ez dute oraindik hizkuntza menderatzen duen hiztunik eman. Nolanahi ere, Man uhartean, manxerako azken hiztuna 1974an hil zen arren, hizkuntzak gaur egun laguntza publiko handia du, eta gainera, manxeraz erakusten den eskola bat dago. Nahiz eta hori lortu duten, oraindik hizkuntza biziberritzearen iraunkortasunari dagozkien kezka egon badaude. Grenoble-k eta Whaley-k (2006: ix) egoeren arteko desberdintasunak direla-eta azaltzen dute ezinezkoa dela adierazpen orokorrak egitea, hizkuntzaren biziberritzea nola egin beharko litzatekeenaren inguruan. Eta hori ere, ez da lan honen helburua. Horren ordez, “hizkuntza salbatzeak” zer esan nahi duen erantzuten ahaleginduko naiz, bereziki, Kanaletako uharteetako eta Man uharteko pertsonengan arreta berezia ipiniz. Hala ere, kontzeptu eta esparru teorikoen emaitzetan islatuz -besteak beste, hizkuntza ideologietan-, eta baita bestelako emaitzetan ere, espero dut azaldutako ideiak baliagarriak izatea hizkuntzaren biziberritzeak eragiten dien pertsonentzat. • **Hitz gakoak:** hizkuntza biziberritzea, hizkuntza-plangintza.

**Abstract.** This article reflects on what an effective policy of language revitalization for endangered languages might be. It also explores concepts of language revitalization such as definitions, objectives, methods and challenges, and considers possible criteria for the evaluation of results. The article aims to help us understand the meaning of “saving a language” and the effectiveness of language revitalization. The article examines language-related activities analysing their basic reasons and consequences based on two case studies, both of which are small government systems ruled by the British Isles: the Channel Islands and the Isle of Man. In all these islands, use of the local languages declined in the twentieth century but language has been seen as an important mark of distinctiveness in the past thirty years, which has brought public support and greater visibility for the languages. However, this re-evaluation has not necessarily led to greater use or wider knowledge. In the Channel Islands local languages are not

on the syllabus and revitalization efforts have yet to produce a single full speaker. However, although the last Manx speaker died in 1974, in the Isle of Man the Manx language receives a lot of public support and there is a school where teaching is through Manx. Despite these achievements, there is still concern over the future of Manx revitalization. Grenoble and Whaley (2006: ix) say that given the differences between situations, it is impossible to make general statements about how the revitalization of a language should take place. That is also not the purpose of this study. Rather, I shall attempt to say what, in particular, “saving a language” means, with particular attention to people in the Channel Islands and the Isle of Man. Nonetheless, I hope that by showing the results of theoretical concepts, such as language ideologies, and others too, the ideas discussed will be found useful by those working in the area of language revitalization. • *Key words: Language revitalization, language planning.*

## **SARRERA: “HIZKUNTZA BAT SALBATU”?**

I

Romaine-ek (2008) galzorian dauden hizkuntzen aurrean hiru erantzun-motaren sailkapen bat garatu zuen. Mota horietako bakoitzak hizkuntzari dagozkien hainbat pentsaera eta ideologia, eta gizartean duen eginkizuna islatzen du:

1. Ezer ez egitea
2. Galzorian dauden hizkuntzen informazioa biltzea
3. Mehatxupean dauden hizkuntzak mantentzea/indarberritzea

Gobernu askok hizkuntza gutxituekiko eta galzorian dauden hizkuntzekiko lehenesten duten politika 1. da, hau da, “ezer ez egitea”. Jarrera horrekin, ordea, Fishman-ek (2006) eta Spolsky-k (2009) azpimarratzen duten legez, zaila da hizkuntza gutxituen erabilera mantentzea. Nolanahi ere, lan honetan ez dugu zehatz-mehatz aztertuko atal hori, gaia “hizkuntza bat salbatzea” baitugu. Aldiz, adieraziko dut hizkuntza bat mantentzeko erantzunik sinpleena “hitz egitea” den arren, sarritan, hizkuntza-planifikatzaileek edo interes-taldeek kontuan hartzen dutena azken irtenbidea dela, bai goi-beheranzko ekimenetan eta baita behetik goranzkoetan ere.

Hizkuntzalari askok galzoriko hizkuntzekin hartzen duten jarrera informazioa eta deskribapenak biltzea da, hau da, 2. jarrera. Haientzako, “hizkuntza bat salbatzea” grabaketak, transkripzioak eta metadatuak artxibo digital seguru eta eskuragarrietan etorkizunerako gordetzea da. Batzuek, informazio linguistikoak gordetzeko artxibo digitalak ezinbestekoak direla uste duten arren, beste batzuek “museoekin” alderatzen dituzte (Fishman 1996; Dobrin et al. 2009): hizkuntza kutxa gotor baten sartzan dute, hizkuntza bizi modura erabili ordez. Dora Marks Dauenhauer eta Richard Dauenhauer Alaskako bi hizkun-

**Romaine-ek (2008) galzorian dauden hizkuntzen aurrean hiru erantzun-motaren sailkapen bat garatu zuen:**

**1. Ezer ez egitea.**

**2. Galzorian dauden hizkuntzen informazioa biltzea.**

**3. Mehatxupean dauden hizkuntzak mantentzea/indarberitzea.**

**Hizkuntzalariek duten arriskua, galzorian dauden hizkuntza-komunitateez ohartzea eta hizkuntzak deskribatzea da, komunitateak biziberritzeko ahaleginetara erakarri gabe.**

tzalarik ederki laburtzen dute desberdintasuna: “kontserbazioa ... baiak marmelada potoetan eta izokina latetan sartzea da ... Liburu eta grabaketek hizkuntzak kontserbatu dezakete, baina soilik jendeak eta komunitateek mantendu ditzakete bizirik” (aipua Maffi 2003; Walsh 2005). Hizkuntzalariek duten arriskua, galzorian dauden hizkuntza-komunitateez ohartzea eta hizkuntzak deskribatzea da, komunitateak biziberritzeko ahaleginetara erakarri gabe.

Romaine-ek (2008) argudiatzen du 1. eta 2. jarrerak antzekoak direla, izan ere, informazioa biltzea, hizkuntza-aldaketen arrazoiak eta konponbideak bilatzea baino neutroagoa da, “zientifikoagoa”, ez hain politikoa. Honako bi aldean artean etengabeko tentsioa dago: alde batetik, hizkuntzalarien lehentasun tradizionalak daude, zeintzuen ardura nagusia den “desagertu baino lehen hizkuntzen grabaketak gordetzea” (AEBko gobernuak finantzaturako *NEH Documenting Endangered Languages* web orritik<sup>2</sup>); onuradun nagusiak hizkuntzalaritza deskriptiboak dira, bereziki tipologia. Eta beste alde batetik, “hizkuntzalaritzarako, gizarte zientzietarako eta hizkuntza-komunitateentzat gordailu bat eratzeko” helburua duen erretorika. Hori ezartzeko erak hizkuntza-komunitateei “zerbait itzultzeko” jarrera etikoa sustatzen du. Bi aldeak Romaine-ren 3. jarreratik hurbil daude, hau da, “mehatxupean dauden hizkuntzak mantentzea/indarberitzea”; eta hori da hain zuzen galzoriko hizkuntza-komunitateetako kide askok eta askok nahi dutena (Grenoble 2009). Normalean, galzorian dauden hizkuntzentzat hezkuntza-materialak ez dira hizkuntzaren informazioa biltzeko proiektuen zati izaten (Rice 2010; Mosel 2012), eta zaila da horri bideratutako finantzaketa lortzea.

Nik baieztatu dut informazioa biltzea eta hizkuntzaren plangintza eta biziberritzearen arteko erlazioa zeharkakoa dela (Sallabank 2012). Grabaketak ez dira nahitaez hizkuntza biziberritzeko ideiarekin biltzen edo aztertzen (Sugita 2007; Amery 2009; Childs et al. 2014), eta hizkuntza biziberritzeko mugimenduek ez dituzte, edo ezin dituzte zertan horretarako erabili: biltzen diren hizkuntzaren jarduera-motak, maiz, ardura antropologiko tradizionalak islatzen dituztenak dira, erritu, kontakizun eta ipuinetan zentratuz. Denak umeei zuzendutako hizkuntza-interakzioak dira, zeinak biziberritze-programetan baliotsuenak izan daitezkeen eta grabaketa-biltzetik ateratzen diren. Ekintzaile batzuen arabera, hizkuntza biziberritzeko ahaleginak ez dute hizkuntzaren informazioa biltzeko beharrik: “hizkuntza bat biziberritzeko behar duzun gutzia gela baten umeei hizkuntza hori hitz egiten dieten helduak dira” (Kipp 2009). Deskribapen linguistikoa ez da beharrezko-

tzat hartzen: “gidari bikaina izan zaitezke zure autoaren motorrak nola funtzionatzen duen jakin gabe, eta, era berean, hizkuntza-irakasle bikaina izan zaitezke analisi linguistikoak nola egiten diren jakin gabe” (Speas 2009). Hala eta guztiz ere, informazio-biltze sistematikorik gabe (Dorian 1981) etorkizunean biziberritzearekin jardungo direnak hizkuntzari buruzko informaziorik gabe utz ditzake; eta hori Australiako hainbat hizkuntzarekin gertatu da.

Hizkuntzaren biziberritzea ondo teorizatuta ez dagoen alorra da: definizioak ez dira beti adosten, helburuak ez dira beti agerian azaltzen, eta emaitzak ez dira maiz ebaluatzen. Ahalegin horiek ekimen-sorta zabala ekar dezakete (ez bakarrik hizkuntza irakastea, askotan uste izaten den moduan), eta normalean “komunitateek” bultzatutako oinarriko ekimenak dira; nahiz eta “komunitate” hitza hizkuntza biltzearen esparruan askotan sinplistegi erabiltzen den eta komunitateak monolitikoak ez diren. Sarritan, komunitateak zatitu egiten dira desadostasunen eta hizkuntza nola “salbatu” behar den inguruko kontrako pentsaera eta ideologiaren ondorioz (Hoffman 2006; Austin & Sallabank 2014).

Hizkuntza dokumentatzearen bidetik, hizkuntza biziberritzeko idazketa-sistema “ezin hobeak” diseinatzea eta dokumentazio-corpusetatik hiztegiak, gramatika eta istorio liburuak egiteko gai teknikoa erraz samarra da. Eta jakina, prozedura teknikoki egingarria izan daiteke software multimediararen inguruko jakintza kontuan izanda. Baina hizkuntzaren biziberritzea materiala sortzea baino gehiago da: hizkuntzajarrereri, ideologiei eta elkarrizketei ekin behar zaie; askotan, baita komunitate-politikei ere, eta, zer esanik ez, hizkuntza-erabilerei. Marquis-ek eta biok deskribatzen dugun moduan, biziberritzearen alor eztabaidagarrienetako bat ortografia garapena edo aldaketa da, zeina komunitateen barruko kontu ideologiko irmoen isla izan daitekeen (Sallabank & Marquis 2016a; ikus Sebba 2007).

## **HIZKUNTZA BIZIBERRITZEKO PLANGINTZA ETA HELBURUAK**

“Biziberritzearen” hitzez-hitzeko interpretazioak hizkuntza baten *bizitasuna* zaharberritzeko/handitzeko ahalegina adierazten du. Hizkuntza-bizitasunaren eruedetan, besteak beste, Fishman-en (1991) Belaunaldiz Belaunaldiko Dislokazio Eskala (GIDS), *Arriskuan dauden munduko hizkuntzen UNESCO Atlas*a (Moseley 2010) eta Lewis eta Simons-ek (2010) garatutako GIDS Hedatua (EGIDS), familiartekoen hizkuntza transmisioa faktore funtsezko gisa ikusten da: “ez bazaie

---

**Sarritan,  
komunitateak  
zatitu egiten dira  
desadostasunen  
eta hizkuntza  
nola “salbatu”  
behar den  
inguruko  
kontrako  
pentsaera eta  
ideologiaren  
ondorioz.**

**Fishman-ek  
“okerreko  
frontea”  
aipatzerakoan  
azpimarratu nahi  
du lehenetsi  
behar dela  
belaunez  
belauneko  
transmisioaren  
gai nagusia eta  
diglosi egonkor  
bat ezartzea,  
alfabetatzea edo  
eskola-ikasgaiei  
arreta jarri baino  
lehen. Hala ere,  
Romaine-ek  
(2006) adierazi  
du munduko  
hizkuntza-  
mugimendu eta  
planifikatzaile  
gehienek ez  
diotela  
jaramonik egin  
Fishman-en  
aholkuari.**

oinordekoei ama-hizkuntza transmititzen ... ez da posible izango hizkuntza bat bera ere mantentzea” (Fishman 1991: 113). Fishman-ek honakoa jakinarazten du:

Ingurugiro soziolinguistikoa gizartean marjinalizatutako hondakin bizigabeez eta HINBE mugimendu akituez kutsatuta dago, zeinak borrokan jarraitu duten okerreko frontean ..., benetan jakin gabe zertan ari ziren edo zein arazo-motari aurre egin behar zieten. (Fishman 1991: 113)

Fishman-ek “okerreko frontea” aipatzerakoan azpimarratu nahi du lehenetsi behar dela belaunez belauneko transmisioaren gai nagusia eta diglosi egonkor bat ezartzea, alfabetatzea edo eskola-ikasgaiei arreta jarri baino lehen. Hala ere, Romaine-ek (2006) adierazi du munduko hizkuntza-mugimendu eta planifikatzaile gehienek ez diotela jaramonik egin Fishman-en aholkuari. Horren ordez, garrantzi goreneko esparruei jarri diete arreta, hala nola, hezkuntza formalari eta estatus ofizialari. Hainbat arrazoik egin dute hori posible: hizkuntza-komunitateentzat eta ekintzaileentzat errazagoa izango da hizkuntza ikasketa-planetan sartzeko kanpaina bat bultzatzea, haien eta beren bizilagunen jokatzea aldatzea baino (Dauenhauer & Dauenhauer 1997; King 2001).

Bai goi-beheranzko plangintzetan eta baita gizarte zibiletik sortutako ekimenetan ere, funtsezko garrantzia ematen zaie jende gazte eta haurrei, bertako hizkuntzen etorkizuna bermatuko dutelakoan, nahiz eta oso haur gutxik ikasten duten hizkuntza familiaren baitan. Baina hainbat mugimenduk haurrei hezkuntza-esparru formaletan irakastea erabakitzen dute, bai ikasgai modura eta baita murgiltze-ereduan ere (eskolaurrean hasita edo “hizkuntza kabia” modura). Dena dela, horrek ez du inolaz ere ziurtatzen haurrek hizkuntza eskolatik kanpo ere erabiliko dutenik; eta are gutxiago hizkuntza horretan heziko direnik, kontuan badugu eskolan ikasten duten hizkuntza hori ez dela haurtzaintzan erabiltzen (Edwards & Newcombe 2005). Hala eta guztiz ere, Grenoble-ek eta Whaley-k (2006: 10) adierazten duten moduan, “hizkuntzaren erabilerako funtsezko alorra hezkuntza da. ... Derrigorrezko hezkuntza soilik nazio hizkuntzan izaten bada, bertako hizkuntzaren erabilerak behera egingo du”. Guernesey-n, nire berriemaile askok adierazi zuten etxeetan guernesey-era hitz egiteari uzteko arrazoi nagusietako bat eskolan onartua ez izatea zela. Hezkuntza-sistemak prestigio baxua indartzen du, eta horrek erakusten du eskoletan onarpena lortzeak biziberritze-mugimendu askoren helburuetan duen garrantzia, eskolak estatusa igoarazten baitu eta horrekin batera erabilgarritasuna; eskolak oso eraginkorrak izan dira hizkuntza mendera-

tzaileak sustatzen, eta uste da, era berean, eraginkorrak izan daitezkeela estatus baxuagoak dituztenak sustatzen.

Arreta eskoletako hizkuntzaren biziberritzean jartzen bada, egoeretako aldaketak ere antzemango dira: galzorian dagoen hizkuntza bat sozializatzeko bide nagusi bezala sartzea ez da helburu errealista bat, bereziki hizkuntza hori ez badago zabaldua, erabilera urria badu edo gurasoek ez badute menderatzen. Romain-ek (2006) honako galdera egiten du: “etorkizunean, hizkuntzaren iraganeko erreprodukzio-eredu berdinek sostengatuko dute hizkuntza-aniztasuna?” Aipatutako “erreprodukzio-eredu” horiek hizkuntza eskoletan erakustea eta helduek ere ikasi eta irakastea behar dute. Hala eta guztiz ere, ikasle guztiek ez dute lortzen hizkuntza menderatzea, eta asko konforme daude soilik esaldi batzuk ikastearekin, ondoren momentu egokietan nortasuna sortzeko alderdi zehatzak nabarmentzeko; Esate baterako, Guernesey-n, batzuek nahikoa dute gerneseyeraz errezipitatzearekin.

Gero eta kasu gehiagotan badirudi “hizkuntzaren biziberritzea ez dela “dena edo ezer ez”-eko kontua (Thieberger 2002: 325). Shandler-ek (2006) galzoriko hizkuntzen erabilera-mota honi “post-bernakular” izena ematen dio, hau da, helburu bezala hizkuntzaren balioaren ideia susatzea. Hizkuntza “biziberritzeko” era horretan, hizkuntzaren komunikazio-funtzioak ez dira erabiltzeko arrazoi nagusia, izan ere, bere balioa nortasunaren, harrotasunaren edota bereizgarritasunaren adierazle izatea da. Argudiatu liteke ekintzaileek ingurumen linguistikotan edo inprimaketareman hizkuntzaren idatzizko erabilera handiagotu dutenez, antzeko lehentasunak ageri direla. Beharbada ekintzaileen eta hizkuntza-planifikatzaileen nahia beren hizkuntza gehiago zabaltzea da, estatusa handitzeko -edo lortzeko-, edota kontzientzia pizteko. Izan ere, Guernesey-n, badago jendea bertako hizkuntza existitzen dela ere ez dakiena.

Grenoblek eta Whaley-k (2006:ix) *Saving Languages: An Introduction to Language Revitalization* liburuaren hitzaurrean adierazten dute “orain arte hizkuntza biziberritzeko egin diren ahaleginen ebaluazio zintzo bat egiten bada, arrakastarik izan ez dutela erakutsiko dela”. Ez dute zehazten zein erreferentzia-puntu erabili dituzten balorazio ezkor hori egiteko, baina zera azpimarratzen dute:

Eskualdeko hizkuntza baten ortografia adostea edo haurrentzako telebista programa bat egitea lorpen handia da, baina ez du hizkuntza biziberrituko. Horren ordez, epe luzerako eta alde anitzeko programa bat behar da, eta horrek ardura pertsonal handiaren eta baliabide sorta zabal baten beharra du.

---

**Eskualdeko  
hizkuntza baten  
ortografia  
adostea edo  
haurrentzako  
telebista  
programa bat  
egitea lorpen  
handia da, baina  
ez du hizkuntza  
biziberrituko.  
Horren ordez, epe  
luzerako eta alde  
anitzeko  
programa bat  
behar da, eta  
horrek ardura  
pertsonal  
handiaren eta  
baliabide sorta  
zabal baten  
beharra du.**

**Grenoble eta Whaley-k (2006) garrantzi handia ematen diete helburuak ezartzeari. “Gutxienez... [helburuek] biziberritze-prozesua zuzentzen zaien horien onarpena izan beharko lukete, baita biziberritzeak ekarriko duen hizkuntza-maila ere, [eta azkenik] bertako hizkuntza erabiliko diren erabilera-eremuak”. Baina kontu handiz antolatutako programa bat beharbada ez dator bat hizkuntza biziberritzeko mugimendu askoren gizarte zibiletik sortzen denarekin. Sarritan, hizkuntza biziberritzea, nahiarekin lotuta dago plangintzarekin baino gehiago.**

2012ko abenduaren 19an, Adrain Cain manxera hizkuntzaren ordezkariak esan zuen “hizkuntzarekiko kontzientziazioa ez dela azken helburua, eta horrek ez badu jendea hizkuntza ikastera eta erabiltzera animatzen, ez duela arrakastarik izan”. Kontu handiz eratu den programa horretan sartu gabe esan daiteke seinale, multimedia eta eskola-klaseen moduko ahaleginak, normalean, kontzientzia pizteko izan ohi direla, eta ez erabilera sustatzeko. Hizkuntza-politikak ez dira sarritan hizkuntzari buruzkoak, izan ere, hizkuntzaren beste balio batzuk ezarri daitezke, hala nola, kapital politikoa edo biziberritze soziala. Thieberger-ek (2002) aditzera ematen duenez, horiek helburu baliozkoak izan daitezke, beti ere erabaki-hartze kontzienteen ondorio badira. Hori horrela, testuinguru askotan, Kanaletako uharteetan barne, hizkuntzaren biziberritzerako helburuak aztertzeke eztabaidarik ez egotea kezkatzekoa da. Hortaz, arduratzeko arrazoia izan behar du uharteetako hizkuntza indigenak eginkizun sinbolikoetarako eta hizkuntza minimalizatuak bilakatu daitezkeela beste aukerarik aztertu gabe.

Grenoble eta Whaley-k (2006) garrantzi handia ematen diete helburuak ezartzeari. Honakoa adierazten dute: “Gutxienez, ... [helburuek] biziberritze-prozesua zuzentzen zaien horien onarpena izan beharko lukete, baita biziberritzeak ekarriko duen hizkuntza-maila ere, [eta azkenik] bertako hizkuntza erabiliko diren erabilera-eremuak” (2006: 174). Baina kontu handiz antolatutako programa bat beharbada ez dator bat hizkuntza biziberritzeko mugimendu askoren gizarte zibiletik sortzen denarekin. Sarritan, hizkuntza biziberritzea, nahiarekin lotuta dago plangintzarekin baino gehiago. Horrek esan nahi du epe laburreko eta luzeko helburuak zehazteko (“hizkuntza biziberritzea” bezalako termino lausoetan izan ezik) eta ondorioak ebaluatzeko joerarik ez dagoela. Finkatutako helburuak baldin badira, baina erdi-mailako edo ebaluaziorako plangintzarik ez badute, oso orokorrak izan daitezke (adibidez, “hiztunen kopurua handitzea”); edo bestela, helburu eta metodoen arteko desadostasunak egon daitezke (adibidez, eskoletan belau-naldien arteko transmisioa berrezartzea espero izatea). Interes gehien dutenak askotan hainbat ekintzatarata murgiltzen dira, honelako galderrei erreparatu gabe:

- Zergatik da hizkuntza biziberritzea hain desiragarri?
- Norentzat da? Oraingo hiztunentzat? Etorkizuneko belaunaldientzat? Talde etnikoen kideentzat (eta nola neurtu daiteke hori?), edo edonorentzat?
- Nola egin dakiok aurre?
- Zein motatako hizkuntza edo kultura irudikatzen/bultzatzen da?

— Eraginkorra da? Zerk osatzen du “arrakasta”? Nola neurtu dezakegu?

— Eta garrantzitsuen, nor du galdera hauei erantzuna emateko boterea?

Galdera horiek eta antzekoak lagungarriak izan daitezke helburuak eta lehentasunak ezartzeko, eta baita hizkuntza biziberritzearen aurka daudenei argumentuen bidez aurre egiteko ere. Fishman-ek alderdi horiei “alde aurreko azalpen ideologiko” izena ematen die (Fishman 1991; 2001; Dauenhauer & Dauenhauer 1998; Kroskirty 2009); eta besteak beste hizkuntzarekiko sinesmenei, kulturari, nortasunari, alfabetatzeari, hizkuntza-aldaketari eta jabekuntzari lotzea eskatzen du. Horiek guztiak hizkuntza biziberritzeko mugimenduak ados ez dauden oztopo posibleetako batzuk dira. Hortaz, oso garrantzitsua da ikusten diren eta ikusten ez diren helburuak ere ulertzea, eta politikak eta praktikak eramaten dituzten ideologia-botereak inoiz ez gutxiestea.

Une honetan, hizkuntza biziberritzeak eta hizkuntza-politikek bat egiten dute. Hizkuntza-politikek hizkuntzaren erabileran eragiten duten erabaki edo ekintzak dira: ikusten direnak eta ikusten ez direnak, kontzienteak eta inkontzienteak, antolatu direnak eta antolatu ez direnak. Spolsky-ren arabera (2004; 2009), hizkuntza-politikak hiru atalez osatzen dira: hizkuntzaren praktikak, sinesmenak eta kudeaketa. Praktikak jendeak publikoan (edo pribatuan) hizkuntzarekin egiten duena da. Eta horrez gain, hizkuntza horretan hitz egitea baimenduta ala debekatuta dagoen, edo zein diren erabiltzen diren hizkuntzak ere hizkuntza praktikak dira. Sinesmenak, aldiz, hizkuntzarekiko edo bere aldaerekiko jarrerak dira, hots, zein hizkuntza, nola eta zein egoeratan erabil beharko liratekeenaren inguruko iritziak; horri elebitasun eta eleaniztasunari buruzko sinesmenak eta hizkuntzen eta dialektoen arteko bereizketak lotzen zaizkio, izan ere, hizkuntza politiken zati oso garrantzitsu dira. Azkenik, hizkuntza-kudeaketa, hizkuntza baten arazo identifikatzea eta horri aurre egiteko neurriak hartzea da (Nekvapil 2006). Hizkuntza-politikak garatzeko indar gehien duten aldagaiak sinesmenak eta jarrerak dira; hortaz, sinesmenak kudeatzea (edota eragina izaten saiatzea), hizkuntza-politiken inplementazio arrakastatsu baten oinarritzko elementu bat bihurtzen dira. Hala ere, nahiz eta sinesmenen kudeaketa (baita ere plangintza –Haarmann 1984) hizkuntza biziberritzeko beharrezko urratsa den, ez ditu zertan hizkuntzaren erabilerak aldatu, Sallabank-en (2005) nioen moduan.

---

**Hizkuntza-politikak garatzeko indar gehien duten aldagaiak sinesmenak eta jarrerak dira; hortaz, sinesmenak kudeatzea (edota eragina izaten saiatzea), hizkuntza-politiken inplementazio arrakastatsu baten oinarritzko elementu bat bihurtzen dira. Hala ere, nahiz eta sinesmenen kudeaketa hizkuntza biziberritzeko beharrezko urratsa den, ez ditu zertan hizkuntzaren erabilerak aldatu.**

**1. Taula: Hizkuntza-praktikak, sinesmenak eta ideologiak**

Hizkuntza-praktikak	Zer egiten duen jendeak hizkuntzarekin	Sumatutako hizkuntza-jarrera
Pertzepzioak eta sinesmenak	Zer uste duen jendeak egiten duela	Hizkuntzaren informazioa biltzean, askotan galdeketa biltzen dena
Hizkuntzekiko ideologiak	Zer uste du jendeak haiek edota besteek egin beharko luketela	Gramatikari buruzko iritziak

Sarritan uste da hizkuntza-politikak sortzea goitik beheranzko prozesua dela, hau da, erakunde ofizialen edota instituzioen ardura. Hala ere, Spolsky-k (2004, 2009) eta Nekvapil-ek (2006) diote hizkuntza-politika eta beren kudeaketa maila guztietan gertatzen dela (UNESCO edo Europar Batasuna bezalako erakundeen bidez), hala nola, nazioarteko, nazioko eta eskualdeko instituzio eta ikastetxeetan, eta baita enpresetan, bertako komunitateetan, gizarte-taldeetan eta gizabanakoetan ere. Hizkuntzaren inguruko erabakiek bizitzako alor guztietan eragiten dute, adibidez, puntuazioan, nazio-hizkuntzan eta hezkuntza-motan. Pertsona batek hizkuntza bat ikastea erabakitzen duenean, testuinguru eleaniztun batean hizkuntza bat erabiltzea aukeratzen duenean, edota seme-alabei hizkuntza horretan hitz egitea erabakitzen duenean, politika-erabakiak hartzen ari da, nahiz eta erabaki horiek ez dituen kontzienteki hartzen. Hizkuntza-politika asko joera irmotan eta mailaz mailako jabetze-prozesuetan eskuratutako sinesmen eta pertzepzio sendoetan oinarritzen dira. Irakaste horretan, haurtzaroko eraginak bereziki garrantzitsuak dira (Bourdieu 1991: 12). Horrek esan nahi du hizkuntza-politiketako eztabaidak ez direla hizkuntzari buruzkoak soilik, hau da, hobeto ulertu nahi bada beste ezagutzak ere beharrezkoak direla, hala nola, politika, ekonomia, kultura eta gizarte teoria, gizarte psikologia eta antropologia-ezagutzak.

Ager-ek (2005) dio goi-beheranzko hizkuntza-planek erabilera-eremu altuetan arreta jartzeko joera dutela (adibidez hezkuntza, erlijioa, sistema juridikoa), eta aldiz, hizkuntza-ekintzaileek sinesmenetan eta jarretan. Hala ere, desberdintzea ez da erraza, ezta ahaleginak bideratzea ere. Erabilera-eremu gorenetan, hizkuntza baten erabilerak edo sustapenak jarreretan eragin dezakete, eta hortaz (hala espero da), baita praktketan ere. Erabilera-eremu altu horiek ere hizkuntzak, hezkuntza eta komunikabide digitalak erabiltzeko foroak eratu dituzte. Gai-beheranzko politikek lantokian erabiltzeko ahaleginak egin ditzakete, Galesen antzera, non funtzionarioek galesa jakin behar duten edo ikasten egon behar duten. Irlandan aldiz, hizkuntza etxean erabiltzea sustatzen dute. Gorago aipatu dudana bezala, behetik goranzko mugimen-

duek, sarritan, hizkuntza ikastetxeetan sartzen edo hizkuntzaren onarpen ofiziala lortzen saiatzen dira, hala, bere estatusa handitzeko.

Hizkuntza gutxituen onarpen ofizialak abantailak eta desabantailak ditu. Egia da gobernuaren babesak boluntario-taldeek baino baliabide gehiagorekin eta norabide estrategikoekin lagun dezaketela, baina goi-beheranzko kontrolak, hiritarrak partaide aktiboak baino, hartzaile pasibo bihur ditzake. Romaine-en (2002a) arabera, hizkuntza lehenago baztertu egin zuten erakundeen eskuetan geratzen da, eta horrek, hizkuntzaren osasunari dagokion segurtasun-sentsazio faltua eragin dezake. Romaine-ek (2002b) aipatzen du “lotura ahulak” daudela lege-gintzaren eta ezarpenaren artean, eta goi-beheranzko politikak, sarritan, “etxeko erabileran hizkuntza ofizialen politikak inpaktu baliogabea” dutela. Eta, jakina, gobernuen politikak alda daitezke; aldiz, aktibista boluntarioek, normalean, beren hizkuntzarekiko konpromisoa izaten jarraitzen dute politika, ekonomia eta gizarte egoerak kontuan hartu gabe (Wilson, Johnson & Sallabank). Baina gorago aipatu bezala, gerta daiteke aktibistek ikuspegi orokorrik edota hausnartutako helbururik ez izatea, eta horrek, Baldauf-en arabera (1994), “plangintzarik gabeko hizkuntza-planetara” eraman ditzake.

Lan honetan ikertzen diren bi kasuak Kanaletako uharteetan (Mantxako kanalean, Britainia Handia eta Frantziaren artean) dauden Guernesey eta Jersey uharteak, eta Irlandako itsasoan Ingalaterra, Irlanda eta Eskoziatik ia distantzia berdinerako dagoen Man uhartearen daudenak dira. Uharte horiek ia tamaina, biztanle-kopuru eta estatus politiko eta soziolinguistiko berdina dute: hirurak autonomia-maila bat duten gobernu-sistemak dituzte eta galzorian dauden hizkuntza indigenak dituzte. Bakoitzak bere parlamentua du barne politiketan erabaki ahal izateko. Estatus politikoari dagokionez, guztiak Britainia Handiko koroaren mende daude; ez daude Erresuma Batuen ezta Europar Batasunaren mende ere, eta horrek esan nahi du zenbait esparrutan (bereziki zerga esparruan) autonomia handiagoa dutela. Era berean, ordea, ez dute laguntzarik jasotzen Europan hizkuntza gutxituak sustatzeko ekimenetatik. Azken errolden arabera, Man uhartearen 88.000 biztanle inguru daude, Jersey-n 100.800, eta Guernesey-n 63.000. Hiru uharteetatik, biztanle-dentsitate handiena duena Guernesey da, eta, aldiz, Man uharteak da biztanle-dentsitate txikiena duena. Azken bi mendeetan, guztiak izan dute Erresuma Batutik etorritako immigrazio handia; biztanleriaren bi heren baino gehiagok jatorri britainiarra du. Faktore hori nabarmena izan da bertako hizkuntzen beharakadan.

---

**1970ko hamarkadan, Man uhartearen manxeraren azken hiztuna zendu zen. Baina 1980ko hamarkadatik aurrera, manxera berriro hitz egiteko elkarren arteko ahalegin etengabeak egin dira, eta gaur egun manxera “berpiztuaren” “hiztun berriak” daude. Kanaleko uharteetan, jerseyeraren eta guerneseyeraren (Frantzia iparraldeko Oil hizkuntzen familiakoak.**

**Hiztunei aukera  
ematen diete  
harrotasuna  
adierazteko beren  
hizkuntzetan,  
garrantzitsua  
baita norberaren  
konfiantzarako.  
Dena den,  
jaialdiek ez dute  
asko laguntzen  
eguneroko  
erabilera  
sustatzeko.**

1970ko hamarkadan, Man uhartean, manxeraren (Irlandako eta Eskoziako gaelikoarekin lotuta dagoen hizkuntza zelta) azken hiztuna zendu zen. Baina 1980ko hamarkadatik aurrera, manxera berriro hitz egiteko elkarren arteko ahalegin etengabeak egin dira, eta gaur egun manxera “berpiztuaren” “hiztun berriak” daude. Kanaleko uharteetan, jerseyeraren eta guerneseyeraren (Frantzia iparraldeko Oïl hizkuntzen familiakoak, normandieraren aldaerak) erabilera nabarmenki gutxitu zen XX. mendean, eta gaur egun galtzeko egoera larrian daude (adineko hiztun tradizionalak gero eta gutxiago dira). Hala ere, hizkuntza horiekiko jarrera oso positiboa izan da azken 30 urteotan (Sallabank 2013a). Jarraian, uharte bakoitzean hizkuntzarekin lotura duten ekimenak aipatuko ditut, eta ondoren, konparaketak egingo ditut. Bi ekimen-mota bereiz ditzakegu: hizkuntza mantentzea eta hizkuntza biziberritzea. Lehen kasuan, gehienbat, hiztun tradizionalen komunitateei zuzendutako ekintzak biltzen dira (Kanaleko uharteetan), eta bigarrenak, hiztun-kopurua handitzeko asmoa du. Bi xede-talde horietako pertsonen adina, normalean ez da berdina izaten.

## **HIZKUNTZA BIZIBERRITZEA GUERNESEY-N**

**I** Guernesey-n, hizkuntzari lotutako ekimen nagusiak bi dira: jaialdiak (bereziki hizkuntza-lehiaketak) eta eskolaz kanpoko klaseak.

Kanaleko uharteetan, hizkuntzarekin lotutako bi ekintza nagusiak Jersey eta Guernesey-ko Eisteddfods eta *Fête d’la Vieille Langue Normande* dira, eta urtero kultura-elkarteek antolatzen dituzte Guernesey-n, Jersey-n eta Normandian (Johnson 2008). Guernesey-k eta Jersey-k beren Eisteddfod Elkartea dute, eta urtero jaialdiak antolatzen dituzte; hizkuntzek jaialdiko atal oso txikia betetzen dute. Bai Guernesey-n eta baita Jersey-n ere, azken hamar urteotan, hizkuntza ikasten duten parte-hartzaileak geroz eta gehiago dira, bereziki eskola-adineko haurrak: batzuk eskoletako abesbatzetan parte hartzen dute, eta beste batzuek, bakarrik. Lehen baino haur gehiagok parte hartzen dutenez, eta bertaratu nahi duten gurasoen kopurua handitu denez, jaialdia bi egun desberdinetan ospatzen da. Baina hala, belaunaldien artean elkar eragiteko aukerak murriztu egin dira. Hasteko, klase nagusiak berezko hiztunentzako zuzenduta daude, eta zenbaitetan, “erdi-maila” lortu duten ikasle edo hiztun pasiboek berezko hiztunen aurka lehiatu behar dute *Classe Supérieure* mailan.

“Hizkuntza biziberritzeko ekimenak” erabili ordez, nahita erabili dut “hizkuntzarekin lotutako ekimenak”, izan ere, jaialdi horietan arreta

emanaldiko hizkuntzan dago jarria. Kontzientzia pizteko helburua ere badute; uharteko hizkuntzen ikusgarritasuna/entzungarritasuna handitzen dute gertuko entzuleekin eta estaldura mediatikoarekin. Horrez gain, hiztunei aukera ematen diete harrotasuna adierazteko beren hizkuntzetan, garrantzitsua baita norberaren konfiantzarako. Dena den, jaialdiek ez dute asko laguntzen eguneroko erabilera sustatzeko. Bestalde, guerneseyera naturalki erabiltzen dutenen kopurua (emanaldiak salbu) gutxitzen ari da. 2002. urtean, *Guernsey-French Eisteddfod*-en parte-hartzaileak aztertzen hasi nintzenean, iragarpen guztiak guerneseyeraz ematen zituzten. Adina dela eta, hizkuntza menderatzen duten hiztun-kopuruak behera egiten duenez, partaide eta jarraitzaileek (epaileek barne) gero eta gutxiago menderatzen dute hizkuntza, beraz, epaileek ingelesa erabiltzen hasi dira, lehenbizi, hasiberriei eta haurrei, eta duela gutxi, ekitaldi osoan zehar. Joera bera hizkuntzarekiko interesa duten taldeen topaketetan ikus daiteke.

Hizkuntzarekin lotutako bigarren ekintza nagusia eskolaz kanpoko klaseak dira, ikastetxeetako instalazioetan ematen dira, eta normalean astean 30 minutukoak izaten dira eskola-orduen ondoren edo bazkalorduetan. Eskola horiek oso ezagunak dira eta uharthe nagusian dauden lehen hezkuntzako 14 ikastetxetatik 8tan ematen dira. Bestalde, duela gutxi, aurigniera ikasteko - Alderney-ko hizkuntza zaharra- eskolak ematen hasi dira, nahiz eta 1960ko hamarkadan hitz egitea eten zen. Alderney Guerneseyko Bailiazgoa osatzen duen bigarren uharterik handiena da. Guerneseyera eskolak irakasle boluntarioek ematen dituzte, zeinak “berezko hiztuntzat” hartzen diren, baina, ez dute hizkuntza, haiek uste bezain ondo menderatzen, Marquis eta Sallabank-en (2013) aipatu moduan. Eskolak ikastetxeetako instalazioetan ematen diren arren, guerneseyera ez da ikasketa-planetan sartzen. Gobernuak ez du diru-laguntzarik ematen, eta irakasle boluntario gehienek ez dute prestakuntzarik jasotzen: hizkuntza irakasteko agiririk garrantzitsuena “berezko hiztunaren” estatusa da. Eskola-material gutxi dago, eta gainera ez dute ikasketa-programarik: 2004ean esperimentuarekin hasi zirenetik, ez da egon hasiberri-maila gainditu duen ikaslerik.

Gaur egun, guerneseyera ez da hizkuntza gutxitu edo ofizialtzat hartzen. Hala ere, 2013ko otsailean, gobernuak babestutako *Guernesey Language Commission*<sup>3</sup> hizkuntzaren aldeko lan-batzordea sortu zuten. Helburua hizkuntza menderatzen dutenen eta soilik eguneroko esaldiak dakizkitenen hiztun-kopurua handitzea da; eta baita guerneseyera hizkuntzarekiko<sup>4</sup> harrotasuna handitzea ere. 2014. urtetik aurrera, *Language Commission and Guernsey Museums' Access and Learning* izeneko sai-

---

**Guernesey-ko lorpen nagusia azken 30 urteotan egon den jarreraketa aldaketa ikaragarria izan da.**

**Ortografiaren  
inguruko  
adostasun eta  
batasun ezak  
seinaleak  
guerneseyeraz ez  
egotea eta  
ikasmateriala ez  
egitea eragin  
dute.**

lek helduentzako klaseak finantzatu dituzte eta hizkuntza-planak hasi dituzte, besteak beste, *Guernsey Song Project*<sup>5</sup> (Guernesey-ko Abestien Egitasmoa), abestiak guerneseyeraz idazteko. Proiektu horren asmoa da hiztun berrien eta hiztunak ez diren (batez ere musikariak) eta adinekoen arteko interakzioa sustatzea: hizkuntza biziberritzeko *Master-Apprentice* egitasmoa (Hinton et al. 2002), *ley bohti*, /le b ti/ (adiskideak) izena duena. Beste ekimen bat ‘*Speed Patois*’ izenekoa da; zita azkarraren formatua du eta guerneseyeran hitz egiteko helburua du.<sup>6</sup> Hizkuntza-batzordeak ere itzulpen-zerbitzu baten laguntza komertziala eskuratu du, izan ere, guerneseyera idatziz izateko eskaera nabarmenki handitu da ondorengo erabileretan: seinaleetan, esloganetan, tatua-jeetan, bitxitegietan, sare sozialetan, abestietan, artean eta hizkuntza ikasteko testuinguruan.

Eskatzen diren itzulpenak, nagusiki hizkuntzaren erabilera post-bernakularraren adierazle dira, hau da, narrazioa edo jaialdietan aurkeztutako antzezlanak bezalako generoak izan ordez, testu laburrak dira. Guerneseyeraz aldi behin erabiltzen diren “testuinguru linguistikoren” parte dira, eta bertako produktu eta zerbitzuen marketan guerneseyeraz idatziz adierazten dira, adibidez, kafea, autobuseko ordu-tegiak edota nekazaritza-emanaldi bateko iragarkiak. Baina hizkuntza hori ez da erabilera *jariokor* baten isla eta ez da *zehatza* ere: helburu horietarako, esan liteke hizkuntzaren “ideia” nahikoa dela balio sinboliko edo bertako markatzat hartzeko. Adibide bat ematearren, aipatu dezaket jaso nuela behin, guerneseyera hitz egiten ez duen, baina hizkuntza mantentzea eta biziberritzearen alde dagoen pertsona baten postal-txartela. Postal horretan, familia zahar baten irudia zegoen, zaldi-gurdi batean, zuren gainean paratuta; eta etxez aldatzea zihoazeneko berri ematen zuen, zera esanez: *Nou sra changier d’maison*.<sup>7</sup> Hizkuntza menderatzen ez duten jarraitzaileak konbentzitu daitezke, esanez, horrelako ekimenak hizkuntza biziberritzea bultzatzearen aldeko adibide direla. Baina, esaldia hain kaxkarra dela ikusita, eta itzulpena egiteko garaian hartu den ardura hain txikia izateak, kontzientzia eza eta guerneseyeraren estrukturarekiko errespetu falta erakusten du. Adibide horien kexuen eraginez, hizkuntza-batzordeak itzulpen-zerbitzu fidagarri bat eratu du.

## LORPENAK ETA ERRONKAK GUERNESEY-N

**I** Gizarte zibiletik sortutako ekimenei eta ekintzei meritua aitortu behar zaie, izan ere, Guernesey-ko lorpen nagusia azken 30 urteotan egon den jarrera-aldaketa ikaragarria izan da. Guernesey-ko hizkuntza-

batzordea ezartzeak jarrera-aldaketa horiek eta aitorpena islatzen dute, zeinak ezkutatu beharrean (adineko berriemaile anglofono baten arabera), bertako hizkuntzaren kultura eta politika bereizgarritasun-marka baliotsua agerian jarri duen. Hala ere, tendentzia horiek eta gizarte zibiletik sortutako taldeen hizkuntza antzezteko joerak Bankston eta Henry-ren (2000) definitu duten “kultura etnikoaren merkantilizazio” bezala har daitezke.

Oraindik gobernu eta oinarrizko mailetan hizkuntza-estrategia kohe-siorik ez egotea beste arazo larri bat da. Argibide ideologikoen eta hel-buru argien falta hainbat eremutan nabarmentzen da horien adibide dira honakoak: eskolaz kanpoko klaseen koordinazio eta ikasketa-plan eza, hezkuntza-agintarien aldetik hizkuntzarekiko konpromiso falta, eta funtzio publikoko departamentuetan komunikazio eskasa (edo laguntza eza). Eta horrez gain, planifikazio-agintariak, seinaleak guerne-seyera egitea ukatzen dute. Itzulpenen eskaera handia izan den arren, guerneseyera ingurumen linguistikotik kanpo dago, bereziki sei-nale funtzionaletatik. Ortografiaren inguruko adostasun eta batasun ezak seinaleak guerneseyera ez egotea eta ikasmateriala ez egitea era-gin dute (ikus Sallabank eta Marquis 2016a).

Bestalde, hain uharte txikian, hizkuntzarekin lotuta dauden ekimene-tan parte hartzen duen biztanle-kopurua mugatua da. Pertsonen bote-re mugatu horren ondorioz, ekintza-sorta txikia da: badirudi adineko “berezko hiztunek” lehentasuna dutela eskoletan boluntarioki irakas-teko, eta horrek, denbora eta energia kentzen diete. Hizkuntzarekin lotutako ekimene-tan parte hartzen duen jende-kopurua handitzeko lehentasuna guerneseyera helduei irakastea izan beharko litzateke, izan ere, berezko hiztunen kopurua oso azkar murrizten ari da, eta 60 urtetik beherakoen artean 5 edo 6 pertsonak soilik menderatzen dute hizkuntza. Helduentzako eskola eraginkorrik gabe, ez da ia inor gai izango beren seme-alabei hizkuntza transmititzeko, ez etxean ezta eskola formaletan ere. Baina erreferentziazko eta ikasketa-material era-bilgarri oso gutxi dago, bereziki ikasle helduentzako. Ikerketa baten bidez, Yan Marquis-ek (Sallabank and Marquis 2016b), tokiko ikertzaile eta irakasleak, erakutsi du Guernesey-n eta Jersey-n hasiberrien maila gaintzen duten bigarren hizkuntzako ikasleen gehiengoa gizonak eta adin ertainekoak direla. Etorkizunean guerneseyera eta jerseyera hitz egiteko eta irakasten jarraitu ahal izateko, hizkuntza heldu-gazteentza-ko erakargarriagoa egin behar da. Eisteddfod moduko ekintza-motek garai bateko hizkuntza-elkarteak irmotzen dituzte.

---

**Hizkuntzarekin  
lotutako  
ekimene-tan parte  
hartzen duen  
jende-kopurua  
handitzeko  
lehentasuna  
guerneseyera  
helduei irakastea  
izan beharko  
litzateke.**

**Jerseyera era  
“modernoan eta  
tradizionalean”  
sustatzen da, eta  
azken  
berrikuntzak  
birziklatze-  
ontzietako eta  
zaborra biltzeko  
kamioietako  
idazkunak eta  
bertoko gazta eta  
sagardoa  
bezalako  
produktuen  
etiketak  
jerseyeraz  
idaztea da.**

Egoera horretan, hizkuntzaren informazioa biltzeak premiazko garrantzia du, eta hala, Guernesey-ko funtzionario batek dioen moduan, “hizkuntzarentzako hesi” bihurtu da: epe luzerako bilketa da, gaur egun hizkuntza mantentzeko eta biziberritzeko egiten diren ahaleginek arrakastarik ez badute. *Museums Service*-en eta Yan Marquis-en (besteak beste) laguntzari esker, gaur egun guerneseyera erabiltzen den hainbat erabilera-eremutako bilketa nabarmena dago. Grabaketa horiek ez dira oraindik transkribatu edo linguistikoki ikertu (berezko hitzun gehienek ez baitakite ordenagailuak erabiltzen), baina helduentzako eskoletan erabiltzen dira, eta solaskideak aurkitzea zaila egiten zaien ikasleentzat ekarpen-iturri garrantzitsua da.

## HIZKUNTZAREN BIZIBERRITZEA JERSEY-N

Guernesey-n bezala, Jersey-n ere eskolak eta jaialdiak dira hizkuntzarekin lotutako bi ekimen garrantzitsuenak. Jerseyera 1998. urtetik irakasten da eskoletan eta zenbait laguntza ofizial izan du. Lehendik hezkuntzako haurrak dituzten gurasoei galdeketa bat egin zitzaian jakiteko ea jerseyerako eskolak egongo balira euren seme-alabak horietara eramango lituzketen. Galdeketa komunikabideetako eta parlamentuko jarraitzaileen ahozko kanpainaren aurretikoa izan zen, baina ekintzailleak ere harrituta geratu ziren galdeketa adierazitako laguntza-mailarekin. Jerseyerako eskolez *l’Office du Jèrriais*, Jersey-ko hizkuntza-bulegoa arduratzen da, zeina, Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioak finantzatzen duen eta *Le Don Balleine Trust*-eko batzorde batek kudeatzen duen. Batzorde hori 1943. urtean eratu zen jerseyerari buruzko eta jerseyeraz idatzitako lanak argitaratzeko. Bulegoak testuliburuak eta hiztegiak sortu ditu, eta hezkuntza-programaz arduratzen dira gehienbat. 2012. urtetik aurrera, lehen hezkuntzako ikasketa-planean, jerseyerako eskola eta Jersey-ko ondareari buruzko nahitaezko irakasgaia dago. Eskolaz kanpoko klaseak uharterko lau ikastegietan ematen dira.

Ikasle gazte eta helduak Jersey-ko *Eisteddfod*-eko hizkuntza-atalean sartzera animatzen badira, eskola-ordu asko behar dira. *Eisteddfod*-en, jerseyeraz egiten diren ikuskizun tradizionalaz gain, *Badlabecques* (“berri-tsua”) izeneko folk-rock talde batek ere parte hartzen du. Haien helburua jerseyerako musika eta hizkuntza bera entzule gazteentzat erakargarriagoa egitea da. *Badlabecques* taldeak ere garrantzizko lana betetzen du hizkuntzaren prestigioa handitzeko ahaleginetan: besteak beste, Jersey-n jokatu ziren 2015eko Uharteko Jokoetako (uharte txikien mundu-mailako kirol ekitaldia) inaugurazioan jotzeko gonbidatu

zituzten. Ekitaldi horren ezaugarrietako bat da bertako taldeko ordezkariak zina irakurtzea. Zina jerseyeraz irakurri zuten, eta, hori, tokiko hizkuntzaren identitate sendoaren eta azken 30 urteotako jerseyerarekiko jarrera-aldaketa erradikalaren erakusle da.

Bulegoa ikastetxeetako eskolez arduratzeaz gain, helduen jerseyerako eskolen eta hizkuntza sustatzearen arduraduna ere bada. Jerseyera era “modernoan eta tradizionalan” sustatzen da, eta azken berrikuntzak birziklatze-ontzietako eta zaborra biltzeko kamioietako idazkunak eta bertoko gazta eta sagardoa bezalako produktuen etiketak jerseyeraz idaztea da. Hala ere, Man uhartean manxerak duen presentziarekin alderatuta, jerseyera oraindik ingurumen linguistikoko bigarren mailan dago.

Jerseyerako estatus ofiziala ez dago garbi. *Les Pages Jèrriais* web-orrialdeak<sup>8</sup> zera dio: “*Lé Jèrriais est la langue minnoritaihe officielle dé Jèrri*” (“jerseyera Jersey-ko hizkuntza gutxitu ofiziala da”). Hala ere, Jerseyko gobernuko eta *l’Office du Jèrriais*-eko web-orrialdeek ez dute halako ezer aipatzen; gobernuko web-orrialdearen arabera, jerseyera “Jersey-ko hizkuntza tradizionala” eta “Jersey-ko ondarearen zati garrantzitsua” da.<sup>9</sup> Dena den, web-orrialdeko goiburua guztietan honakoa agertzen da jerseyerako itzulpenarekin batera: “Jersey-ko uharteko informazioa eta zerbitzu publikoak” (*L’information et les services publyis pour l’Île dé Jèrri*). Jersey-n berezko hizkuntza dagoela nabarmentzen duen ezaugarri hori Guernsey-ko Hizkuntza Batzordeko buru den Darren Duquemin-ek goraiatu zuen batzordearen hasieran (baina oraindik ez da Guernesey-n gauzatu).

## LORPENAK ETA ERRONKAK JERSEY-N

Hizkuntza Bulegoak eta Don Balleine-ek oso harro azpimarratzen dute hezkuntza-programarekin urtero 200 hurrek ikasten dutela jerseyera. Hala ere, zenbaki horrek ez du erakusten haur oso gutxik lortzen dutela hizkuntza guztiz menderatzea. Nahiz eta eskola amaitu ondoren egiteko jerseyerako gaitasun agiri bat dagoen, orain arte ez du inork azterketa hori gainditu. Horren arrazoia, neurri batean, jerseyera irakasteko eskaintzen zaion denbora eskasa izan daiteke (normalean, astean ordu bete baino gutxiago da), baina baita irakasteko metodoa ere, idazketa eta gramatika gehiago lantzen direlako hizketa baino.

Jerseyera guerneseyera baino gehiago erabiltzen den beste eremu bat interneta da. *L’Office du Jèrriais*-ek, beren web-orriaz gain, jerseyerazko blog bat dauka (idatzia eta ikus-entzunezkoa), YouTubeko kanala,

---

**Hizkuntza Bulegoak eta Don Balleine-ek oso harro azpimarratzen dute hezkuntza-programarekin urtero 200 hurrek ikasten dutela jerseyera. Hala ere, zenbaki horrek ez du erakusten haur oso gutxik lortzen dutela hizkuntza guztiz menderatzea. Nahiz eta eskola amaitu ondoren egiteko jerseyerako gaitasun agiri bat dagoen, orain arte ez.**

**Manxera  
“hizkuntza hila”  
izatetik “uharte-  
arrakastaren  
istorio” izatera  
pasa da. Gaur  
egun manxerak  
gobernuaren  
babesa duen  
arren, bere  
biziberritzearen  
garrantziko  
elementua  
hizkuntza-  
ekintzaileek  
irakasleen  
prestakuntza  
eraginkorrekik  
o eta konpromiso  
politikoarekiko  
izan duten  
engaiamendua  
izan da.**

Facebookeko orrialdeak (ikasleentzako foro batekin) eta Twiter kontua. Hala ere, material osoaren gehiengoa Bulegoak berak sortzen du, eta behetik goranzko parte-hartzea urria da.

Beste arazoetako bat, Jersey-n biltzen den hizkuntzaren informazio falta da., Cambridgeko Unibertsitateko irakasle Mari Jones-ek, normandieraren ezaugarri linguistiko bereziak aztertzeko hizkuntzen transkripzio fonetiko saioak egin ditu Jersey-n, Sark-en eta Normandian, eta kopiak eman dizkio *l’Office du Jèrriais*-i. Hala ere, web-orrian presentzia handia duen arren, gaur egun ez daude jerseyerako grabaketarik segurtasun eta eskuragarritasun ohiko irizpideak betetzen dituen artxiboetan. Jerseyerako eskualde-aldaerak bildu gabe desagertzeko zorian daude ez baitago hizkuntzaren informazioa biltzen duen inor. Arazo hori nahiko kezagarria da, izan ere, hizkuntza irakasteko programarekin (oraindik) ez da inork hizkuntza menderatzea lortu. Bigarren hizkuntza bezala ikasten dutenen artean, hizkuntza menderatzen duten bakarrak hizkuntza-bulegoko hiru langileak dira.

## **MANXERA HIZKUNTZAREN BIZIBERRITZEA/BERPIZTEA**

**I**  
Sarreran aipatu dudan moduan, manxerako azken “berezko” hiztuna 1974. urtean zendu zen. Jarraitzaileek “egun ilunetan” mantendu zuten manxera bizirik, harik eta, 1986. urtean Man uharterako gobernuak bizikalitatearen neurketa egin zuen arte. Izan ere, neurketa horretara uharterko bizitanleriari egindako galderetako bat manxera ikasteko aukera izatekotan, beren seme-alabei aukera emateko alde zeuden izan zen; eta erantzun zutenen herenak baietz esan zuen. Hizkuntza-ekintzaileentzat, neurketa hori hizkuntza-politika ofizialeko inflexio-puntua da. Gaur egun, manxerak geroz eta hiztun gehiago ditu, eta baita onespren ofiziala, azterketa publikoak eta oso azkar zabaltzen ari den erabilera ere (Kewley Draskau 2001). Gainera, hizkuntza biziberritzeko mugimendu indartsua eta gobernuaren babesa dute (askotan gobernuz kanpoko erakundeen bidez).

Horrez gain, 1980ko hamarkadan, guraso-talde konprometitu batek manxera ikasi zuen eta beren seme-alabekin hitz egiten zuten. Horren ondorioz, haur eskola bat eta manxerako lehen hezkuntzako ikastetxe bat sortu ziren. Gaur egun, ikastetxe hori beteta dago 70 haurrekin (gobernuak finantzatzen du baina hizkuntza erakunde batek kudeatzen du). Ikasleek, bigarren hezkuntzan, hiru irakasgai manxeraz ikasteko aukera dute. Murgiltze ereduaz gain, manxera hautazko irakasgai

bezala irakasten da eta Erresuma Batuko “A” mailaren (batxilergoa, matura) baliokidea da. Gobernuak hizkuntza-bulegoko bi langile finantzatzen ditu; batak irakasgai horiek irakasten ditu, eta besteak, helduen irakaskuntzaren eta publizitate orokorraren ardura du.

Nahiz eta manxeraren biziberritzea sarritan “berpizkundetzat” jotzen den, *hizkuntza hila* terminoaren aurkako iritziak daude. Defendatzaileek, hizkuntzalari eta jarraitzaileen bidez, 1950eko hamarkadan berezko hiztun tradizionalen eta hizkuntza menderatzen duten hiztun berri helduen arteko jarraitasuna bilatzen dute.

Manxera “hizkuntza hila” izatetik “uharte-arrakastaren istorio” izatera pasa da. Gaur egun manxerak gobernuaren babesa duen arren, bere biziberritzearen garrantzizko elementua hizkuntza-ekintzaileek irakaslearen prestakuntza eraginkorrekiko eta konpromiso politikoarekiko izan duten engaiamendua izan da. Normalean, ordaindutako postuetan dauden hizkuntza-langileak lehenago ekintzaileak izan ohi dira. Hiztun berrien komunitate bat garatzeko helduen eskola eraginkorrek izan duten paper garrantzitsua ere aitortua izan da. Hizkuntza-bulegoak antolatutako eskola formalez gain, mintzapraktikako taldeak sortzen ari dira uharte osoko etxeetan eta kafetegietan. Hala ere, manxerako hizkuntza-bulegoak onartzen du manxeraren biziberritzea ahula dela oraindik. Nahiz eta 2011. urteko erroldan 1640 pertsonen manxera “pixa bat” zekitela adierazi zuten, uste da 150 pertsonen soilik menderatzen dutela hizkuntza (eskolako ikasleak kenduta). Hizkuntzaren biziberritzean parte hartzeko prest dagoen biztanleria mugatua izango den kezka nabaria da; hala ere, ikasle-kopuruak hazten jarraitzen du.

## **EZTABAIDA: LEZIOA IKASITA?**

**I** 1970 eta 1980ko hamarkadetatik, ikertzen ari garen hiru uharteetan, gizarte zibiletik sortutako ekimenek egoera politikoan lagundu dute. Egoera politiko horretan, hizkuntza indigenenganako gobernuaren babesa desiragarri bihurtu da jende ororentzat eta politikoentzat. Ikerketa honek jende ororen “jarrera-aldaketa” erakusteak gobernu-politikan eragina izaten lagundu du. Jarrera baikorrek eta kontzientzia pizteak ezin du neurri zehatzagorik gabe hizkuntza bat “salbatu”; hala ere, neurri horietara bultza dezake jendearen babesak.

Jakina da hizkuntza biziberritzearen ikerketan ez dagoela “bakar batek guztientzako balio du” eredua: testuinguru batean egokia dena, desegokia izan daiteke beste testuinguru batean. Gainera, helburuak des-

---

**Mugimenduek  
besteen  
esperientzietatik  
ikas dezakete, eta  
zenbait alderdi  
komun  
identifikatu  
daitezke.  
Ikerketa  
honetako  
defendatzaileen  
konpromisoa  
ezinbestekoa da:  
adibidez,  
kontzientzia  
pizteko, iritzi  
hedatu bat egoera  
politiko ulerkor  
bat bultzatzeko  
helburuarekin,  
eta beharrezkoa  
bada, politikariei  
beren aginduak  
gogorarazteko.  
Bunscoill-era  
(manxerako  
lehen  
hezkuntzako  
ikastetxea)  
hainbat bisitari  
joan ohi dira,  
besteak.**

**Hizkuntzaren  
biziberritzerako  
eta  
plangintzarako  
gobernuaren  
laguntza, hazi eta  
murriztu daiteke  
egoera politiko  
edo ekonomikoen  
arabera, baina  
aktibista  
boluntarioek  
konpromiso  
handia izaten  
jarraituko dute  
gizarteak jasaten  
dituen egoera  
politiko,  
ekonomiko eta  
sozialak edozein  
direlarik ere.**

berdinak izan daitezke; faktore garrantzitsuenetako bat da helburuak azalpen ideologiko baten prozesuaren bidez adierazi behar direla, eta hizkuntza-ekologiako aldatetei erantzun behar zaiela. University of British Columbia-ko (Canada) irakurle gonbidatu baten laburpenean, honakoa adierazi zuen Leanne Hinton-ek:

Arrakastatzat jotzen dena desberdina, indibidualista eta behin-behinekoa da, izan ere, arrakastatsutzat hautematen den ekimen hori berehala abiatzen da helburuak, estrategiak eta ikuspuntuak aldatzera. “Arrakasta” ezin da, ezta ere, ahaleginaren amaieratzat jo, hizkuntzaren biziberritzea prozesu bukaezina baita; beste hizkuntza bat menderatzailea den lurraldean, ezin da ahaleginean etsi.

Baina mugimenduek besteen esperientzietatik ikas dezakete, eta zenbait alderdi komun identifikatu daitezke. Ikerketa honetako defendatzaileen konpromisoa ezinbestekoa da: adibidez, kontzientzia pizteko, iritzi hedatu bat egoera politiko ulerkor bat bultzatzeko helburuarekin, eta beharrezkoa bada, politikariei beren aginduak gogorarazteko. *Bunscoil*-era (manxerako lehen hezkuntzako ikastetxea) hainbat bisitari joan ohi dira, besteak beste, aktibistak, irakasleak, pedagogoak, politikariak, funtzionarioak eta mundu osoko eta Guernesey eta Jersey-ko telebista taldeak. Jerseyerako hizkuntza-programa Man uharterako hizkuntzaren biziberritzean oinarritzen da, eta lehen irakaste-materialak manxerakoen materialen egokitzapenak izan ziren. *Le Don Balleine*-ko zuzendaritza-batzordeko kide baten arabera, “erabili eta egokitutako liburuak Man uharterkoak ziren, beren onespenearekin lapurtu genituen. Gu laguntzearren pozik zeuden”. Hala ere, badaude manxeraren eredia jarraitu ez dituzten alderdi garrantzitsu batzuk, hala nola, jerseyerako grabaketa eskasa, jerseyerako (eta guerneseyerako) heldu eta haurren hizkuntza-mailetan hobekuntza eza, irakasleen prestakuntza falta, eta azkenik, hizkuntza- edo hezkuntza-plangintzen hobekuntza eza. Azken urteotan, *Le Don Balleine*-ek eta *l’Office du Jèrriais*-ek arazo horri aurre egin diote, adibidez, jerseyeraz mintzatzeko aukera sozialak sustatuz (nahiz eta oraindik ez dauden Man uharteetan bezain beste, manxeraz mintzaten diren haurren futbol-talde bat baitute, ibiltari-klubak, musika-saioak, gau-ekitaldiak tabernetan, etab.). Ekintza horien askoren arazoak konpromiso gehiagoren falta, hizkuntza menderatzea edo bigarren hizkuntzako hiztunen arteko konfiantza dira. Bestalde, *l’Office du Jèrriais*-en 18 urteko buruzagitzaren ardurapean, gizarte zibiletik sortutako ekimen eza egon daiteke.

Man uharterko gobernuak, Jersey eta Guernesey-koek baino hizkuntza biziberritzeari zuzendutako diru-laguntza handiagoa eskaintzen du.

Hala ere, ekonomia-arazoak eta aurrekontuen murrizketen garaia denez, manxeraren jarraitzaileak ere kontziente dira plan berri bat behar dutela gobernuaren diru-laguntza murriztu egiten bada; eta hala, independentzia-maila bat mantendu ahal izango dute. Gobernuaren laguntzek balia bideak eta zuzendaritza estrategikoa ekar dezakete, baina garrantzitsua da gizarte zibiletik sortutako oinarriari boterea ez kentzea. Wilson, Johnson eta Sallabank-ek (2015) aipatzen duten bezala, "hizkuntzaren biziberritzerako eta plangintzarako gobernuaren laguntza, hazi eta murriztu daiteke egoera politiko edo ekonomikoan arabera, baina aktibista boluntarioek konpromiso handia izaten jarraituko dute gizarteak jasaten dituen egoera politiko, ekonomiko eta sozialak edozein direlarik ere". *Pobble* ("Herria, Komunitatea, Jendea") izeneko erakunde bat sortu dute manxera komunitate bezala babesteko eta aktibisten belaunaldi berriak mobilizatzen saiatzeko:

"Pobble-ak" hizkuntza-mugimenduetan jarduten diren horiek mezua zabaltzen jarrai dezaten eta dagoeneko lortutakoan oinarritu daitezen lagunduko du. Man uharteko gobernuari meritua aitortu behar zaio bere konpromisoarengatik; hala ere, manxerako biziberritzea beti gizabanakoen eta jarraitzaileen talde txikiei esker izan da, lan asko egin baitute manxerari ehusteko eta hizkuntza zaintzeko, bereziki komunitatean laguntza gutxi zegoen momentuetan. (Pobble 2013)

Man uharteko esperientziak erakutsi du zein garrantzitsua den galtzeko arriskuan dagoen bigarren hizkuntza bat modu eraginkorren ikas-tea eta irakastea transmisioarekin jarraitu ahal izateko. Horrez gain, irakasteko prestakuntzak duen garrantzia azpimarratu du. Hezkuntza ona izateko, irakasleak ere onak izan behar dute, eta Jersey-n eta Guernsey-n hizkuntza irakasteko metodo egokirik gabe, ez da hobekuntzarik egongo. Manxerako irakasle batzuek Skye uharteko (Eskozia) *Sabhal Mòr Ostaig* eskolara joan ziren, han egiten baitira Eskoziako gaelikoa irakasteko prestakuntzak.<sup>10</sup> Ez daude antzeko prestakuntza-eskolarik normandiera edo antzeko hizkuntzetarako, baina aukera bat da Kanadan Akadiako frantsesa edo Louisianan cajun frantsesa ikasteko murgiltze-programetara joatea, bi horiek Kanaleko uharteetako normandieraren antzekoak baitira. Dena den, kontuz ibili behar da Kanaleko uharteetan frantsesarenganako konbergentzia ekiditeko, izan ere, dagoeneko arazo larria da irakasleen prestakuntza ezagatik eta "zuzentasunaren" ideologia diglosikoa zabalduta dagoelako.

Manxeraren biziberritzearen osagai garrantzitsuena *Bunscoil*-a da, baina eskola horretara joatea ez dute haurrek erabaki, beren gurasoek baizik. Yan Marquis-ek "urrutiko hezkuntza" izena eman dio: hein batean

---

**"Pobble-ak"  
hizkuntza-  
mugimenduetan  
jarduten diren  
horiek mezua  
zabaltzen jarrai  
dezaten eta  
dagoeneko  
lortutakoan  
oinarritu  
daitezen  
lagunduko du.  
Man uharteko  
gobernuari  
meritua aitortu  
behar zaio bere  
konpromisoareng  
atik; hala ere,  
manxerako  
biziberritzea beti  
gizabanakoen eta  
jarraitzaileen  
talde txikiei  
esker izan da, lan  
asko egin baitute  
manxerari  
ehusteko eta  
hizkuntza  
zaintzeko,  
bereziki  
komunitatean  
laguntza gutxi  
zegoen  
momentuetan.**

**Metodo horien arrakasta konpromisoarekin, esperientzia baikorrekina eta bultzatzaileen gogoekin zerikusi handiagoa izango du metodoen eraginkortasunarekin baino. Lan honetan argi geratu da hizkuntza biziberritzeko elementu nagusia konprometitutako gizabanakoak direla, hortaz, garrantzitsua da ikasleen (eta irakasleen) motibazioak eta helburuak ulertzea.**

hizkuntza ikasteko sinesmen linguistikoengatik, helduek ez dute beren burua hizkuntza bat ikasteko gai ikusten, eta haien ordez seme-alabek ikastea nahi dute. Bestalde, eskola horretara seme-alabak eramateko guraso askoren arrazoiak ez da manxeraren biziberritzeak arduratzen dituztelako, baizik eta, eskola elebidun bakarria delako eta elebitasunak dituen abantaila kognitiboak ezagutzen dituztelako. Beste arrazoi bat ere “eskola txikia delakoa”<sup>11</sup> izan daiteke (Clague 2009; Sallabank 2013b). Guraso batzuek, beren seme-alabei lagundu ahal izateko, manxera ikasten hasten dira. Eta kasu batzuetan, euren etxetan praktika-taldeak izaten dituzte: hau “alderantzizko belaunaldien arteko transmisioaren” adibidea da, hots, helduek seme-alabengandik ikasten dute.

Baina aukera hori ez dago oraindik Kanaleko uharteetan. Guerneseyko irakasle boluntario batzuek diotenez, eskolaz kanpoko klaseetara joaten ziren haur batzuek hizkuntza espero baino gehiago menderatzen hasten ziren beren aitona-amonekin, guerneseyeraz hitz egiten baitzuten. Ezohiko kasu horietan, guerneseyera eskoletan onartuta egoteak (nahiz eta ikasketa-programatik kanpo dagoen) familian mintzatzeko errespetagarri izatea egin du. Hala ere, aitona-amona batzuk konturatu dira haurrek hizkuntzaren beste aldaera bat ikasten ari direla, eta horrek komunikazioa oztopatzen du. Guerneseyera irakatsi duten batzuen ustez, eskolaz kanpoko klaseak ez dira eraginkorrak, izan ere, haurrek oso gutxi ikasten dute eta eskolatik kanpo guerneseyeraz hitz egiteko aukera gutxi dute: aitona-amona askok ez dute guerneseyeraz hitz egiten, eta kontrako kasuan, ez dute elkar hainbeste ikusten. Gehiegizko zuzentasuna ere arazo larria da haur eta helduentzako: ikasleei “ez dugu horrela esaten” esaten diete, eta horrek etsiarazten ditu (Sallabank & Marquis 2016b).

Helduek hizkuntza gutxitu bat ikastea erabakitzen badute, normalean ondorengo hiru arrazoiengatik izaten da: ondarea, nortasuna eta helburu pertsonalak. Hizkuntza gutxitu bat eta nazioarteko hizkuntza bat ikastearen artean hainbat desberdintasun daude: baliabide gutxi daude, baliteke komunikabideetan ez egotea, eta hizkuntza menderatzen dutenak biztanleriaren %0,4 (Guernesey-n) edo %0,2 (Man uharteetan) badira, solaskideak aktibo egon behar dira hizkuntza menderatu ahal izateko. Irakaste-teknikak ere desberdinak izan daitezke: Eskoziako gaeliko ikasteko Ulpan (entzun eta mintzatzeko) metodoa erabiltzen da gehienbat, aldiz, Zeelanda Berrian, helduek maoriera ikasteko metodo erabiliena *Te Ataarangi* (isilekoa) da. Metodo horiek ez dira ez hizkuntza nagusiak ezta bigarren hizkuntzak ikasteko erabiltzen. Metodo horien arrakasta konpromisoarekin, esperientzia baikorrekina eta bultzatzaileen gogoekin

zerikusi handiagoa izango du metodoen eraginkortasunarekin baino. Lan honetan argi geratu da hizkuntza biziberritzeko elementu nagusia konprometitutako gizabanakoak direla, hortaz, garrantzitsua da ikasle-en (eta irakasleen) motibazioak eta helburuak ulertzea.

Beraz, hizkuntza politikak ez dira (soilik) hizkuntzarekin lotzen. Lehenago aipatu dudan bezala, Guernesey-k, Jersey-k eta Man uharteak komeni zaienean sustatzen dute hizkuntza ondarea, batzuetan iragane-ko hizkuntzak bezala (museoetan, folklore emanaldi eta berritzeetan), eta beste batzuetan “benetako” balio bezala, turismoa edota nazioarte-ko negozioak erakartzeko. Ó hIfearnáin-ek (2010) zera adierazten du:

European indigena gutxituak arriskurik gabeko “gaur egungo hitzunen komunitatetzat” hartzen diren bitartean, mikroestatuek beren hizkuntzaren erabilera ondare sinboliko bezala sustatzen dute nazioarteko arrazoi komertzialengatik eta beren estatu kategoria legezkatzat jotzeko.

Lehenago aipatu bezala, erabilera “post-bernakular” sinbolikoak ez du zertan bizi diren hizkuntzak menderatzea esan nahi. Jakina, batzuetan helburu sinbolikoetarako sortzen diren hizkuntza-irizpideak oso arruntak dira. Beraz, argudiatu daiteke hitzun konprometituek eta gizarte zibiletik sortutako hizkuntza-ekintzaileek (edo “hizkuntza-zaindarien”) hizkuntza menperatu ahal izateko ikasten jarraitu behar dutela estatus sinbolikoa ere lortzeko. Jarrerak aldatu daitezke, eta Man uhartean erakutsi den bezala, Kornualles eta mundu osoko tes-tinguruetan, grabaketa nahikoak badaude, ez da inoiz beranduegi hizkuntza bat biziberritzeko. ●

## **OHARRAK**

1. Lecturer in Language Support and revitalisation, School of Oriental and African Studies, University of London.
2. [www.neh.gov/grants/guidelines/del.html](http://www.neh.gov/grants/guidelines/del.html), azken kontsulta 2012ko urriaren 15ean (testu hau dagoeneko ez dago erantsita).
3. <http://language.gg/guernesiais>, azken kontsulta 2016ko urtarrilaren 2an.
4. ‘Guernesiais’ / d rn zje / izena da berezko hitzunen eta ekintzaileek nahiago dutena, baina anglofonoei oso zaila egiten zaie ahoskatzea.
5. <http://www.guernseysongproject.org/guidelines/>, azken kontsulta 2016ko urtar-rrilaren 8an.
6. Ikus <http://language.gg/article/115903/Speed-Patois> eta [www.youtube.com/watch?v=iLrmcSBcCuA](http://www.youtube.com/watch?v=iLrmcSBcCuA) (azken kontsulta 2015eko abuztuaren 4an). ‘Patois’ guerneseyera izen-datzeago maiz erabiltzen den terminoa da. Frantsesez «aldaera akastuna, okerra» esan nahi du, eta ingelesez «kreolerarekin» lotzen da, horregatik, ekintzaileek erabilera hori gaitzesten dute. Hala ere, Guernesey-ko biztanleak sarritan ez dira konnotazio ezkorrez ohartzen.
7. Tokiko hizkuntza iraganarekin edo zaharkitutako jantziekin lotzeko tropoaz gain (hizkuntza-elkarteen emanaldiek irmotutako joera), itzulpena gramatikalki okerra da; uste da postala diseinatu zutenek soilik hiztegi bat erabili zutela hitzez hitz itzultzeko. Dena

den, esaldiaren itzulpen literala honakoa da: «gu izango gara aldatu etxea»; eta orduan eskuragarri zegoen hiztegi bakarrak (De Garis 1982) ez ditu etxez aldatzeko termino horiek erabiltzen.

8. <http://members.societe-jersiaise.org/geraint/jerriais.html>, azken kontsulta 2016ko urtarrilaren 2an. Web-orrialde hori La Société Jersiaise-eko hizkuntzaren atala da, hau da, kultura-elkartearena. Bulegoaren web-orrialdea honakoa da: <http://www.jerriais.org/je/>.

9. <http://www.gov.je/Leisure/Jersey/Pages/Language.aspx>, azken kontsulta 2016ko urtarrilaren 2an.

10. Manxera eta Eskoziako gaelikoa elkarrekiko ulergarritasun handiko hizkuntzak dira.

11. Hizkuntza murgiltzeko eskola txikien inguruan orain arte aztertu ez den ondorio interesgarri bat dira behar bereziak dituzten haurrak. Gurasoek uste dute eskola txiki batean gehiago arduratuko direla beren haurrez.

## ERREFERENTZIAK

Ager, Dennis E. (2005). 'Prestige and image planning'. *Current Issues in Language Planning* 6: 1-43.

Amery, R. (2009). 'Phoenix or Relic? Documentation of Languages with Revitalization in Mind'. *Language Documentation and Conservation* 3/2:138-148. <http://scholarspace.manoa.hawaii.edu/bitstream/10125/4436/1/amery.pdf> (azken kontsulta 2016ko urtarrilaren 2an)

Austin, P.K. and Sallabank, J. (eds): (2014). *Endangered Languages: Beliefs and Ideologies in Language Documentation and Revitalization*. Oxford: Proceedings of the British Academy / Oxford University Press.

Baldauf, R. B., Jr. (1994). "Unplanned" Language Policy and Planning. *Annual Review of Applied Linguistics* 14: 82-89.

Bankston, Carl L. III, and Jacques, H. (2000). 'Spectacles of ethnicity: Festivals and the commodification of ethnic culture among Louisiana Cajuns'. *Sociological Spectrum* 20: 377-407.

Bourdieu, Pierre. (1991). *Language and Symbolic Power*. Cambridge: Polity Press.

Childs, Tucker, Jeff Good, and Alice Mitchell. 2014. 'Beyond the Ancestral Code: Towards a Model for Sociolinguistic Language Documentation'. *Language Documentation and Conservation* 8: 168-191, <http://hdl.handle.net/10125/24601> (azken kontsulta 2016ko urtarrilaren 2an)

Clague, Marie. (2009). 'Manx language revitalization and immersion education'. *E-Keltoi Journal of Interdisciplinary Celtic Studies* 2: 165-98. [Online journal] [www4.uwm.edu/celtic/ekeltoi/volumes/vol2/2\\_5/clague\\_2\\_5.pdf](http://www4.uwm.edu/celtic/ekeltoi/volumes/vol2/2_5/clague_2_5.pdf), azken kontsulta 2012ko abenduaren 21ean.

Dauenhauer, N. M. Eta Dauenhauer, R. (1998). 'Technical, emotional, and ideological issues in reversing language shift: examples from Southeast Alaska', in Grenoble, L. A. and L. J. Whaley (eds.): *Endangered languages: Language loss and community response*. Cambridge: Cambridge University Press: 57-98.

- Dobrin, L. M., Austin, P. K. and D. Nathan (2009). 'Dying to be counted: the commodification of endangered languages in documentary linguistics', in P. K. Austin (ed.), *Language documentation and description*, Vol. VI. London: School of Oriental and African Studies. 37–52.
- Dorian, N. C. (1981). *Language Death: the Life Cycle of a Scottish Gaelic Dialect*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- Edwards, V. and Pritchard Newcombe, L. (2005). 'When school is not enough: new initiatives in intergenerational language transmission in Wales', *International Journal of Bilingual Education & Bilingualism* 8(4): 298–312.
- Fishman, J.A. (1991). *Reversing language shift: Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Fishman, J.A. (1996). Maintaining languages: What works and what doesn't. In *Stabilizing Indigenous Languages*, ed. Gina Cantoni, 186–198. Flagstaff, Arizona: Northern Arizona University. .  
<http://jan.ucc.nau.edu/~jar/SIL/Fishman2.pdf>, azken kontsulta 2016ko urtarrilaren 2an.
- Fishman, J.A. (2006). *Do Not Leave Your Language Alone*. Mahwah, NJ: Lawrence Erlbaum.
- Grenoble, L. A. (2009). 'Conflicting ideologies and beliefs in the field', paper presented at ELAP Workshop 'Endangered languages: beliefs and ideology', School of Oriental and African Studies, London.
- Grenoble, L. A. and L. J. Whaley (eds.) (2006). *Saving languages: An introduction to language revitalization*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Haarmann, H. (1984). Sprachplanung und Prestigeplanung [Language Planning and Prestige Planning]. *Europa Ethnica* 41: 81-89.
- Hayward, P. (2004). 'Tourism, contact and cultural commodification: a case study of local musical entertainment on the Whitsunday Islands, Queensland, Australia from the 1930s to 1990s'. In D. Harrison (ed.): *Pacific Islands Tourism*. New York; Sydney; Tokyo: Cognizant: 125-139.
- Hinton, L., Vera, M. eta Steele, N. (2002). *How to Keep your Language Alive: A Commonsense Approach to One-on-One Language Learning*. Berkeley, CA: Heyday Books.
- Hinton, L. (2015). What counts as a "success" in language revitalization? The Irving K. Barber Learning Centre-ek babestutako emanaldia, University of British Columbia emana, Vancouver, Future Speakers-ek antolatua: Indigenous Languages in the 21st Century series, 2015eko urriaren 22a. <http://www.ikebarberlearningcentre.ubc.ca/leanne-hinton/> (azken kontsulta 2016ko urtarrilaren 5ean)

- Hoffman, K. E. (2006). 'Berber language ideologies, maintenance, and contraction: gendered variation in the indigenous margins of Morocco'. *Language & Communication* 26: 144–67.
- Johnson, H. (2008). 'Constructing islandness on Jersey: a study of language and La Fête Nouormande',. In Novaczek Irené (ed.): *Culture and the Construction of Islandness: Refereed papers from the third International Small Island Cultures Conference, Institute of Island Studies, University of Prince Edward Island, 29 June–2 July 2007*: 55–63. [sicri-network.org/ISIC3/1.%20ISIC3P%20Johnson.pdf](http://sicri-network.org/ISIC3/1.%20ISIC3P%20Johnson.pdf), azken kontsulta 2016ko urtarrilaren 8an.
- Kewley Draskau, M. J. (2001). 'The sociolinguistics of terminology, with especial reference to less widely-used and revitalised languages', International Conference on Language and Society, Academy of Science ekitaldian aurkeztua, Moscow, 23–26 October 2001 and at the Centre for Manx Studies, University of Liverpool, 19 February 2002.
- King, K.A. (2001). *Language Revitalization Processes and Prospects: Quichua in the Ecuadorian Andes*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Kipp, D. (2009). 'Encouragement, guidance and lessons learned: 21 years in the trenches of indigenous language revitalization', in Reyhner, J. and L. Lockard (eds.): *Indigenous language revitalization: Encouragement, guidance & lessons learned*. Flagstaff: Northern Arizona University: 1–9.
- Kroskrity, P.V. (2009). 'Language Renewal as Sites of Language Ideological Struggle: The Need for "Ideological Clarification"'. In J. Reyhner & L. Lockard (eds.). (2009). *Indigenous Language Revitalization: Encouragement, Guidance & Lessons Learned*. Flagstaff, AZ: Northern Arizona University: 71-83.
- Lewis, M. P., and Simons, G. (2010). 'Assessing Endangerment: Expanding Fishman's GIDS'. *Revue Roumaine de Linguistique/Romanian Review of Linguistics* 2:103–120.
- Maffi, L. (2003). The 'business' of language endangerment: saving languages or helping people keep them alive? In Tonkin, H. and T. G. Reagan (eds): *Language in the Twenty-first Century: Selected Papers of the Millennial Conferences of the Center for Research and Documentation on World Language Problems*. Amsterdam: John Benjamins: 67-86.
- Marquis, Y. and J. Sallabank. (2013). 'Speakers and language revitalization: A case study of Guernesiais (Guernsey)' in Jones, M.C. and S. Ogilvie (eds): *Keeping Languages Alive*. Cambridge: Cambridge University Press: 169-180.
- Mosel, U. (2012). 'Creating educational materials in language documentation projects: creating innovative resources for linguistic research',

- in F. Seifart, G. Haig, N. P. Himmelmann, D. Jung, A. Margetts and P. Trilsbeek (eds.): *Potentials of language documentation: Methods, analyses, and utilization. Language Documentation & Conservation Special Publication No. 3*. M noa: University of Hawai'i Press: 111–17.
- Moseley, C. (ed.) (2010). *Atlas of the world's languages in danger*. Paris: UNESCO.
- Nekvapil, J. (2006). 'From language planning to language management'. *Sociolinguistica* 20: 92–104.
- Ó hlfearnáin, T. 'Language policy, revitalisation and regeneration after language shift: language policy in European micro-polities', paper presented at Sociolinguistics Symposium 18, University of Southampton, 1–4 September 2010.
- Pobble: *Supporting Manx Gaelic as a Community Asset*. (2013). <http://manx.net/isle-of-man-news/58451/pobble-supporting-manx-gaelic-as-a-community-asset>
- Rice, K. (2010). 'The linguist's responsibility to the community of speakers: community-based research', in Grenoble, L. A. and L. N. Furbee (eds.): *Language documentation: Practice and values*. Amsterdam: John Benjamins. 25–36.
- Romaine, S. (2002a). Can stable diglossia help to preserve endangered languages? *International Journal of the Sociology of Language* 157:135–40.
- Romaine, S. (2002b). The impact of language policy on endangered languages. *International Journal on Multicultural Societies* 4: 194–212.
- Romaine, S. (2006). 'Planning for the survival of linguistic diversity'. *Language Policy* 5(4): 441–73.
- Romaine, S. (2008). 'Linguistic diversity, sustainability, and the future of the past', in King, K., N. Schilling-Estes, L. W. Fogle and J. J. Lou (eds.): *Sustaining linguistic diversity: Endangered and minority languages and language varieties*. Washington, DC: Georgetown University Press: 7–22.
- Sallabank, J. (2012). 'From land language documentation to language planning: Not necessarily a direct route' in Seifart, Frank, Geoffrey Haig, Nikolaus P. Himmelmann, Dagmar Jung, Anna Margetts, and Paul Trilsbeek (eds): *Potentials of Language Documentation: Methods, Analyses, and Utilization (Language Documentation & Conservation Special Publication No. 3)*. Honolulu: University of Hawai'i Press: 118–125.
- Sallabank, J. (2013a). 'Can majority support save an endangered language? A case study of language attitudes in Guernsey'. *Journal of Multilingual and Multicultural Development Special Issue on Attitudes towards Endangered Languages* 34: 332–347.

- Sallabank, J. (2013b). *Endangered Languages: Attitudes, Identities and Policies*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Sallabank, J. and Marquis, Y. (2016a). 'Spelling trouble: Ideologies and practices in Giernesiei / Dgernesiais / Guernesiais / Guernésiais / Djernezié...'. In Jones, M. C. and D. Mooney (eds): *Orthography Development for Language Maintenance and Revitalisation*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Sallabank, J. and Marquis, Y. (2016b). "'We don't say it like that": language ownership and (de)legitimising the new speaker', in Smith-Christmas, C. and M. Hornsby (eds): *Ideologies and Practices of New Speakers of Minority Languages*. Basingstoke: Palgrave Macmillan.
- Shandler, J. (2006). *Adventures in Yiddishland: Postvernacular language and culture*. Berkeley/Los Angeles: University of California Press.
- Speas, Margaret (2009). 'Someone Else's Language: On the Role of Linguists in Language Revitalization'. In Reyhner, J. and L. Lockard (eds.): *Indigenous language revitalization: Encouragement, guidance & lessons learned*. Flagstaff: Northern Arizona University: 23-36.
- Spolsky, B. (2004). *Language policy*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Spolsky, B. (2009). 'Language management for endangered languages: the case of Navajo'. *Language documentation and description* VI: 117–31.
- Sugita, Yuko. (2007). 'Language revitalization or language fossilization? Some suggestions for language documentation from the viewpoint of interactional linguistics', in Austin, P. K., O. Bond and D. Nathan (eds): *Language Documentation & Linguistic Theory* 1. London: SOAS: 243-250.
- Thieberger, N. (2002). 'Extinction in whose terms? Which parts of a language constitute a target for language maintenance programmes?' in Bradley, D. and M. Bradley (eds.) 2002. *Language endangerment and language maintenance: An active approach*. London: Routledge: 310–28.
- Walsh, Michael. (2005). 'Will Indigenous Languages Survive?' *Annual Review of Anthropology* 34: 293-315.
- Wilson, G., H. Johnson and Sallabank, J. (2015). "'I'm Not Dead Yet": A Comparative Study of Indigenous Language Revitalization in the Isle of Man, Jersey and Guernsey'. *Current Issues in Language Planning*, 16/3, pp. 259-278.